

Psikologia pixka bat hiztunak motibatzekeo

220 lagun elkartu ginen urriaren 9an Arantzazuko (Oñati, Gipuzkoa) Gandiaga Topagunean. Emun lana euskalduntzeko kooperatibak 10. urteurrena ospatu zuen egun osoko jardunaldiekin, *Motibazioa eta hizkuntza normalizazioa* izenburupean. Nola motibatu ikasleak eta hiztunak euskara erabiltzeko? Hizkuntza bat edo beste erabiltzeko norberaren psikologiak duen garrantzia azpimarratu zuten adituek.



EMUN

ONINTZA IRURETA

MILA ETA BAT MODU probatu dira hizkuntzak (gutxiagotuak) salbatzeko; hizkuntza politika sendoak, irakasle eta ikas material zein baino zein hobek, erreferentzia munduak... ia dena –edo asko behintzat– eskura eta hala ere, gure kasuan, momentua iritsita euskararik ez mihi puntan. Zergatik ez du egiten euskaraz? Hara galderra potoloa. Bada, azken urtetxo hauetan psikologoak ari zaizkigu gizakiaren barrunbe konplexuak aztertzen euskaldunak euskara zergatik ez duen erabiltzen eta erdaldunak zergatik ikasten ez duen deskubritu nahian.

Ez zen Sanzen hizkuntza politika diskriminatzaileaz hitz egin, ezta Frantziak hiritarrak aske eta berdin tratatzeko duen modu xebebreaz ere. Hizlariak ez zuten Interneten dauken euskara ikasteko baliabideen berri eman, ez zen inondik ageri euskarazko jostailuen zerrendarik.



ARGIA

Goian, goizeko hiru hizlariak: Peter Macintyre, Ferran Suay eta Joxpi Irastortza. Behean, Alex Mungia eta Iñaki Elortzak bideratutako mintegian.

Emozioa, bihotza, komunikazio gogoia, hiztunaren urduritasuna, auto estimua, motibazioa, enpatia... hitz horiek eta antzekoak behin eta berri. David Crystal hizkuntzalari galestarrak Bilbon emandako hitzal-

dian esandakoak jaso genituen duela bi aste (2.105 zbk) aldizkari honetan eta hauxe izenburua: “Bihotzak konkistatu hizkuntzak salbatzeko”. Ez da kasualitatea hizkuntzen erabileraz hitz egiten hasita, hizkuntza

ikasleen eta hiztunen beraien bihotzak lehen mailara ekartzea.

Ikaslearen jauzia helikopterotik

Kanadako Cape Breton Unibertsitateko Peter Macintyre psikologoak bigarren hizkuntzan –ez du zertan gutxiagotua izan– komunikatzeko gogoaz eman zuen hitzaldia. Aukera da hitz gako; ez dago egun jakin bat bigarren hizkuntza ikasi duen ikaslea hizkuntza horretan komunikatzen has dadin, azterketa gaintu eta hurrengo egunean ez da hasten ikaslea komunikatzen. Ikaste prozesuan mila aukera ditu eta ikasleak berak hamaika arrazoiengatik berak erabakitzen du noiz erabili hizkuntza hori eta noiz ez.

Hiztunaren jarrera hori hobeto azaldu nahian Peter Macintyre irakasleak helikopterotik paraxutarekin jauzi egiten duen hasiberriaren adibidea jarri zuen bigarren hizkuntza ikasleak hizkuntza horretan komunikatzeko aukera bakoitzean sentitzen duena azaltzeko. Paraxutista hasiberriak jauzi egiteko gogo bizia du, baina aldi berean, salto egitetik zenbat eta gertuago orduan eta larriago dago; nahi du, baina beldur da. Jauzia ondo ateratzen bazaio hurrengorako lasaia egongo da eta alderantziz. Hiztunari beste hainbeste gertatzen zaio: “Euskaraz egingo diot (gure kasuan), baina urduri jarri eta totalka hasten banaiz? Eta oso azkar hitz egiten badu eta ezin badiot segi? Eta berriketa asko luzatzen bada ezinean banabil?”. Uneoro hiztunak erabaki du hitz egin ala atzera egin.

Kanadako Macintyre psikologoak azpimarratu zuen gehiago erabili beharko lirakeela teknika psikologikoak norbanakoaren motibazioa aztertzeko. Izan ere, irakasleak berma dezake ikasleak hizkuntza primeran ikastea, baina ezin du ziurtatu hizkuntza horretan komunikatzeko gogoaz izatea.

Intsumisioa nola praktikatu

Peter Macintyrek hiztunaren komunikatzeko aukerez hitz egin zuen, kalkulatu helikopterotik salto egin behar duen paraxutistaren esku dagoela jauzi egitea ala ez, eta ez beste inoren esku. Aldiz, Valentziako Unibertsitateko Ferran Suay psikologoak gogorarazi zuen –egunero gogorarazten digute egia esan– hizkuntza gutxiagotuetan arituz gero, paraxutistak lurrera bitartean haize bolada galantak jasan beharko dituela eta

“Trakasleak berma dezake ikasleak hizkuntza primeran ikastea, baina ezin du ziurtatu hizkuntza horretan komunikatzeko gogoaz izatea”

PETER MACINTYRE

makina bat aldiz horma joko duela. Haizetea saihesteko onena, jauzi ez egitea, sumisioa alegia. Hizkera zientifikoa esanda, Ferran Suayk “hizkuntza dominatzailearen mende sistematikoki nola ez makurtu” azaldu zuen, eta aldi berean, jokaera intsumisio horien ondorioz sortutako gatazka egoerei nola aurre egin kontatu zuen.

Hiztun batzuek betiko baztertu dute beren hizkuntza, beste batzuek ezagunekin baino ez dute erabiliko, eta beste maila batean daude euskaraz egiten saiatzen direnak parekoak hizkuntza aldatzen duen arte. Jokaera sumisoak dira horiek denak Suayren ustez. Bestelakoa litzateke beti bere hizkuntzan egitea helburu duenarena. Valentziarrak azaldu zuenez, asmo hori burura eramateko ez da nahikoa hizkuntza gutxiagotuetan kontzientzia izatea, eguneroko hizkuntz gatazketan zerbait gehiago behar da hizkuntza dominatzaileak mende har ez zaitzan. Hiztunak

garbi izan behar du bere hizkuntzari eutsiko diola, kontuan izan behar du deseroso sentituko dela –muturrak ikusi beharko ditu, denbora galdu beharko du...– eta pentsatu behar du egoera horietan zer esango eta zer egingo duen. Suayren ustez, horrelako ariketarik gabe hizkuntz sumisioa bermatua dago.

Emuneko teknikari Joxpi Irastortzak eman zuen hirugarren hitzaldia eta berak euskara planak dituzten 12 enpresatako 209 langileekin motibazioari buruz egindako ikerketa azaldu zuen. Plan, zifra eta emaitzez gain, euskara ikasle eta hiztunen iritzia jaso zuten halako galderei erantzunez: Zerk motibatzen zaitu lantokian euskaraz aritzeko, zergatik euskaraz ala zergatik ez?

Arratsaldean norberaren emozioek hizkuntza ikasteko eta erabiltzeko duten garrantziaz aritzeko aukera gehiago izan zen jardunaldietan, bai behintzat Alex Mungia eta Xabier Elortza HABEko teknikariek gidatutako mintegian –beste hiru mintegi izan ziren ordu berean–. Haur txikien gurasoak euskarara erakartzeko saioak egiten dituzte beraien eta emozioen ekologiak euskararen normalizazioari egin diezaiokeen ekarpenaz aritu ziren. Euskararen aldeko betiko diskurtsoaz harago nola erakarri guraso horiek, horixe egitekoa.

Norbanakoon bihotzera heltzea modan dago, hizkuntza kontuetarako eta baita bestelakoetarako ere, ikusi bestela langileak motibatzen nolako teknikak erabiltzen diren. Hiztunen barneko sentimenduak harrapatuta hizkuntzak salbatuta izango direnik ezin esan, baina ezin uka hiztunik gabe ez dela hizkuntza bizirik. ■

[www.argaia.com/argaia-astekaria/2090-helbidean, Ferran Suayk jardunaldietan azaldu-tako teoria sakonago azaldu-ta.](http://www.argaia.com/argaia-astekaria/2090-helbidean,Ferran-Suayk-jardunaldietan-azaldu-tako-teoria-sakonago-azaldu-ta)

Babeslea: Emun

 EMUN LANA EUSKALDUNTZEKO KOOPERATIBA	HIZKUNTZA AHOLKULARITZA ETA EUSKARAZKO ZERBITZUAK:
	<ul style="list-style-type: none"> ■ Enpresa eta erakundeen premiei egokitutako euskara planen kudeaketa ■ Itzulpenak ■ Euskara formazioa
Uriburu, 9 behea 20500 Arrasate Tel. 943 711 847 ● Martin Ugalde Kultur Parkea 20.140 Andoain Tel.943 300 978 emun@emun.com ● www.emun.com	